

Izendegi hau erabiltzean kontuan hartu beharrekoak

Esku artean duzun ponte izendegi hau irakurri aurretik hurrengo puntuetan egiten diren oharrek eduki behar dituzu kontuan. Liburuan, izenaren jatorria eta Euskal Herriko hainbat lekukotasun ez ezik, horrela deitu denaren gaineko datu batzuk ere ematen dira, baita jaiegun, aldaera eta gaztelaniazko eta frantsesezko baliokide ohikoenak ere.

Aldaerak

Maizkara izenek, bereziki aspaldidanik erabiltzen direnek (euskal izen zaharrek edo aspaldidanik geureganatu ditugun kanpokoek, kristau izenek batik bat), ez ohi dute era bakarra, bi edo gehiago baizik. Gainera, ezin dugu ahantzi XIX. mendearen amaieran aldaera berri asko (*Kepa, Edurne...*) proposatu zirela, eta batzuek arrakasta handia izan dutela. Azalpena eta datuak normalean nagusizat hartu den sarreran ematen dira eta aldaeren sarreretan forma nagusi horretara bidaltzen da.

Jaiegunak

Izenen azalpenetan aipatzen diren jaiegunak *Santoral Completo* liburutik hartu dira gehienetan. Santu bat baino gehiago diren kasuetan, eta bakanak dira santu bakarra duten izenak, ezagunena edo Euskal Herrian ohikoena denaren data ematen saiatu gara. Hala ere, litekeena da zenbait lekutan beste jaiegun bat izatea, edo aipatzen den eguna leku zehatz batekoa ez izatea.

Etimologiak

Euskal Herritik kanpoko izenen etimologiak gehienbat *Diccionario dos Nomes Galegos* liburutik hartu badira ere, Bibliografian agertzen diren beste liburuak ere kontuan izan ditugu.

Euskal Herriko izenei dagokienez, zenbait aldiz gure arteko ikertzaile ezagunek

esan dituztenak aipatzen ditugu, baina jakina da maiz iritzi desberdinak eta are kontrajarriak izaten direla. Honelakoetan ez dugu ur handietan sartu nahi izan eta aldian ikertzaile bakar baten ustea aipatzera mugatu gara, gure irudiz egokiena dena, hain justu ere.

Zenbaitetan deizio bat “euskal izena” dela esaten dugu, baina beste askotan ez. Honelako baieztapenak egiteko izenaren jatorria ez ezik haren bilakaera ere kontuan hartu dugu. Adibidez, *Eneko* euskal izentzat hartu dute ikertzaile gehienek eta osagaiak (*ene* ‘nirea’ eta *-ko* atzizki hipokoristikoa) euskarazkoak direla esan. Honelakoetan guk ere “euskal izena” dela diogu.

Baina ez bakarrik horrelakoetan. Izena beste nonbaitetik hartu denean ere, euskararen arau fonetikoei jarraikiz moldatua bada, “euskal izentzat” hartu dugu: *Amatu* (baina ez *Amado*), *Antso* (baina ez *Sancho*), *Berasko* (baina ez *Belasco*), *Bilitu* (baina ez *Bellido*), *Domiku* (baina ez *Domingo*), *Orti* (baina ez *Fortun*)... Nolanahi ere, gerta daiteke —eta *de facto* gertatzen da— izen bat berez erdarazkoa izatea baina gure artean historikoki maiz erabili dena izatea, *Fortun* edo *Santxo* adibidez. Honelakoetan *Fortun* eta *Santxo* ere bildu ditugu, *Orti* eta *Antso*-rekin batera. Beste kasu batzuetan aldaera bakarra bildu dugu (*Berasko*) nahiz eta erdarazko aldaerak (*Belasco*, *Blasco*) gure artean usu aurkitzen ditugun. Honelakoetan, aldaerak bat bestetik gertu baitaude, euskarazkoaren aldeko apostua egin dugu eta hura bakarra sartu, izendegia gehiegi ez zamatze aldera.

Aipuak

Pertsona izenak dokumentuetan agertzen diren moduan ematen dira, grafia eguneratu gabe: *Berasco Aoçavala*, *Andregoto Enneconis*, e.a. Jatorrizko testua begiratzerik egon ez den kasuetan egungo idazkera arautuan ematen dira.

Euskal Herriko izenen kasuan ez ditugu lekukotasun guztiak bildu, ezta gutxiagorik ere, agerian denez gaitzeko lana baita hau, eta izendegia alferrik betetzeko bidea ere bai.

Gerok aurkitu dugun lehenengoa edota geure ustez esanguratsuen dena besterik ez dugu ipini, sarri.

Testuak aipatzen direnean, berriz, euskara batura hurbiltzen saiatu gara, hitzak aldatu gabe, ordea. Alegia, h sartu dugu hizkuntza estandarrean grafema hori agertzen den kasuetan, edo inoiz tz eman dugu originaleko z -ren ordeaz, esaterako.

Izenen baliokideak, frantses eta gaztelaniazkoak, euskarazko testuaren bukaeran ematen dira bakarrik, ez erdarazkoan, alferrikako errepikapenak saiheste aldera.

Oharra

Nolanahi ere, eta esanak esan, ongi dakigu geure lan honek urritasun eta gabezia asko dituela. Horregatik, hutsuneak bete eta akatsak zuzendu nahi ditugulako, irakurleari deia egiten diogu liburu honetan aurkitzen dituen oker eta ahulguneen berri eman diezagun. Seguru egon ohar eta iradokizun guztiak ontzat hartuak izango direla, gure helburua ahalik eta izendegirik osoena eta zuzenena moldatzea baita.

Helbidea:

Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca

Onomastika batzordea

Plaza Barria, 15

Bilbo-48005

Bizkaia

mikelonoma@euskaltzaindia.net

Laburdurak:

A Araba

al. Alemana

AM	Andre Maria
B	Bizkaia
Br.	Bretoierra
<i>DIE</i>	<i>Deun-ixendegi Euzkotarra</i>
EH	Euskal Herria
fr.	Frantsesa
G	Gipuzkoa
gaz.	Gaztelania
K.a.	Kristo aurreko
L	Lapurdi
m	metroa(k)
m.	mendea(k)
N	Nafarroa
NB	Nafarroa Beherea
Z	Zuberoa

Espainiako probintzien kasuan orain arteko matrikuletako letrak erabili dira (Bu, Lo...).

Hitz teknikoen bildumatxoa:

Aldaera. Jatorri bera izanik izen nagusiaren bilakaeratik gehiago edo gutxiago urruntzen den forma. Adibidez, *Antso*, *Antxo*, *Santso* (*Sant(z)o*-tik), *Petri*, *Peru*, *Betiri* (*Petri*, *Petru*-tik)...

Antroponimoa: Pertsona izena.

Asimilazioa, asimilatu: Fonema bat ondoko beste batera hurbiltzeari esaten zaio *asimilatu* eta emaitzari *asimilazioa*. Maiz berdintzera ere iristen da, hau da, bi fonemak berdin bihurtzera.

Atzizki: Hitzaren bukaeran ezartzen den osagaia. Adibidez, *-di* da atzizkia *Artadi* toki izenean eta *-zu* *Artazu*-n.

Baliokidea: Izenak beste hizkuntzetan dituen kideak. Adibidez, euskarazko *Mikel*-en

baliokidea *Miguel* da gaztelaniaz eta *Michel* frantsesez.

Dendronimoa: Zuhaitz izena. Adibidez *haritz*, *urki*...

Disimilazioa: *Asimilazioa*-ren alderantzizko hizkuntza gertakaria dugu hau. Hemen fonema bat bestelakotu egiten da, antzekoa den ondoko beste fonema batetik bereizteko.

Elkartua: Bi hitz edo gehiago elkartuz, batuz, sortzen den hitz berria. Adibidez, *Auru* eta *Bilitu* izenen bat egitearen ondorioz *Aurubilitu* sortu zen Erdi Aroan.

Eratorria: Hitz bati aurrizki, artizki edo atzizki bat erantsiz sortzen den hitz berria. Ikus *Atzizkia*.

Etimoa. Ikus *etimologia*.

Etimologia: Hitz baten jatorriaren gaineko azterketa da. Hedaturaz hitz baten etorkiari, etimoari esaten zaio *etimologia*. Ikus *herri-etimologia*.

Ezizena: Ikus *Goitizena*.

Fitonimoa: Landare izena. Adibidez *gorosti*, *hiazinto*...

Goitizena. Bestela *izengoitia* edo *ezizena* agertzen da lan honetan *goitizena*-ren baliokidetzat. Hau norbait izendatzeko bataio edo familia izenaren ordeztar erabiltzen den deizioa da. Adibidez, *Exkerra* izan daiteke berez ezkerra den norbaiten goitizena. Usaiakoa da literaturan idazleek beren izen-deiturak erabili beharrez goitizenez izenpetzea. Gure artean kasurik ezagunenetakoa *Txillardeg*i-rena da (José Luis Álvarez Enparantza). Honek *Larresoro* ere erabili izan du izengoitizat, bere idazlanetan.

Hagionimoa: Santu izena: *Frantzisko*, *Mami*...

Herri-etimologia: Etimologia okerra da herri-etimologia, hiztunak bere hizkuntzaren gaineko gogoeta egiteari zor zaiona. Funtsean hitz bat inolako loturarik ez duen beste batekin elkartzeari esaten zaio. Adibidez, zenbait tokitan *sagarroia* 'trikua, kirikinoa'-ri *sagarerroia* esaten zaio, hiztunek hitza *sagarra*-rekin lotu dutelako, oker, bistan denez.

Hipokoristikoa: Izenaren aldaera adierazkorra, bereziki familian eta lagunartean erabiltzen dena. Hipokoristikoak dira, esaterako, *Begotxu*, *Gari*, *Joxe*, *Mirentxu*, *Patxi*, *Xatur*... Inoiz, erredakzio kontuengatik eta, *txikigarri* erabili dugu *hipokoristiko* idatzi behar genuen tokian, nahi ongi dakigun ez direla elkarren erabat adierakideak.

Izengoitia: Ikus *goitizena*.

Izenondoa: Normalean izenaren eskuinean ezartzen den adjektiboa.

Ponte izena: bataiatzean eta hedaturaz erroldan sartzean hurrei jartzen zaien izena.

Teonimoa: Jainko izena. Adibidez *Dionysius, Afrodita, Urtzi...*

Toponimoa: Leku izena. Adibidez *Arantzazu, Bianditz, Estibaliz, Idoia, Xabier.*

Txikigarria. Ikus *hipokoristikoa*.

Mikel Gorrotxategi Nieto

Patxi Salaberri Zaratiegi

Cuestiones a tener en cuenta antes de leer este nomenclátor

Antes de leer este diccionario de nombres de pila conviene tener en cuenta estas breves notas. En este libro se menciona el origen del nombre y se da algún testimonio de Euskal Herria. Se dan también otros datos de interés como son la onomástica, las variantes y los equivalentes en castellano y francés.

Variantes

Con frecuencia los nombres, especialmente aquellos que tienen una gran tradición entre nosotros (los nombres euskéricos más antiguos y otros de origen foráneo asimilados hace tiempo, fundamentalmente los cristianos), suelen presentar más de una variante. Además, no podemos olvidar que a finales del siglo XIX se propusieron nuevas variantes, y que algunas tuvieron gran éxito (*Kepa, Edurne...*). La explicación y los datos se presentan en la entrada principal y en las demás el lector es enviado a dicha entrada.

Festividades

Las festividades que se mencionan al final de la explicación de los nombres han sido tomadas del *Santoral Completo*. En los nombres para los que existe más de un santo, y son pocos los que no se encuentran en esta situación, se ha intentado citar la festividad del santo más conocido en Euskal Herria. En cualquier caso, es probable que en algunos lugares la fiesta se celebre en un día distinto al que figura en el texto.

Etimologías

Cuando el nombre tiene su origen fuera de Vasconia la etimología se ha tomado fundamentalmente del *Diccionario dos Nomes Galegos*, pero también se han utilizado otras obras que figuran en la bibliografía.

En lo que respecta a los nombres originarios de Euskal Herria, en algunos casos se reproducen las opiniones de los investigadores más conocidos, aunque en algunos casos estas opiniones no coincidan y sean incluso contrapuestas. En estos casos hemos juzgado conveniente no entrar en discusión y limitarnos a dar una sola opinión, la que en consideramos más verosímil.

En algunos ocasiones aparece la mención “nombre vasco” y en otras no. Para ello tomamos en cuenta no solo el origen del nombre, sino también su evolución. Por ejemplo, el nombre *Eneko* y sus componentes (*ene* ‘mío’ y el sufijo hipocorístico *-ko*) son considerados el grueso de los investigadores como euskéricos. En estos casos nosotros también lo hemos considerado como “nombre euskérico”.

Pero no solo en estos casos. Aquellos nombres tomados de otros lugares pero que han sido modificados de acuerdo a la fonética vasca también los consideramos como “nombres euskéricos”: *Amatu* (pero no *Amado*), *Antso* (pero no *Sancho*), *Berasko* (pero no *Belasco*), *Bilitu* (pero no *Bellido*), *Domiku* (pero no *Domingo*), *Orti* (pero no *Fortun*)... En cualquier caso, puede ocurrir, y de hecho ocurre, que existan nombres que aun no teniendo un origen lingüístico euskérico han sido utilizados de forma secular por los vascohablantes, *Fortun* o *Santxo*, por ejemplo. En casos así hemos recogido las formas en cuestión, junto con *Orti* y *Antso*. En otros ocasiones se da una única variante (*Berasko*), a pesar de que sus equivalentes romances (*Belasco*, *Blasco*) han sido muy comunes entre nosotros. En estos casos en las que las versiones son tan semejantes se ha dado preferencia a la forma vasca, evitando un número excesivo de entradas.

Citas

Los nombres de persona se dan tal y como aparecen en los documentos, sin actualizar la grafía: *Berasco Aoçavala*, *Andregoto Enneconis*, etc. Cuando no ha sido posible consultar el original se dan en la grafía euskérica normalizada.

No hemos recogido todos los testimonios existentes de los nombres estudiados,

pues sería un trabajo ingente y un modo de cargar excesivamente el nomenclátor. Ante esto, hemos optado normalmente por mencionar únicamente el primer testimonio que nosotros hemos encontrado o en su defecto la variante que nos ha parecido más significativa.

En las citas sacadas de textos escritos, al contrario que en los nombres de pila, se ha procedido a una actualización de la grafía. Así se ha insertado *h* en aquellas palabras que la llevan en euskera estándar, o *tz* en ciertos casos que en el original tienen *z*.

Las equivalencias onomásticas (en euskera “baliokideak”) al francés y castellano se dan al final del texto en euskera para evitar repeticiones absurdas.

Nota

Somos conscientes de que la obra que aquí presentamos contiene sin duda muchos errores que será necesario corregir. Por ello queremos pedir la colaboración del lector, rogándole que sea tan amable de hacernos llegar todas las sugerencias que se le ocurran, todos los fallos que encuentre en el nomenclátor, cualquiera que sea el calibre de los mismos. Puede estar seguro el lector que todas las observaciones que se nos hagan serán tenidas en cuenta, pues nuestro objetivo no es otro que la confección de un nomenclátor lo más completo y correcto posible.

Dirección de contacto:

Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua vasca

Comisión de Onomástica

Plaza Barria, 15

Bilbo-48005

Bizkaia

mikelonoma@euskaltzaindia.net

Abreviaturas

A Álava (Araba)

a. C.	Antes de Cristo
al.	Alemán
AM	Advocación mariana
B	Bizkaia
br.	Bretón
<i>DIE</i>	<i>Deun-ixendegi Euzkotarra</i>
EH	Euskal Herria
fr.	Francés
G	Gipuzkoa
gaz.	Castellano (gaztelania)
L	Lapurdi
m	Metros
N.	Navarra (Nafarroa)
NB	Nafaroa Beherea / Baja Navarra
s.	Siglo
ss.	Siglos
Z	Zuberoa

En el caso de las provincias españolas se usaron las letras de la matrícula que se ha usado hasta el presente (Bu, Lo,..).

Pequeño glosario de términos técnicos:

Andramari: Palabra usada para referirse a las imágenes de la virgen de estilo románico, y de una forma general a las representaciones de Nuestra Señora, del euskera occidental o vizcaíno Andra Maria (Santa Maria).

Antropónimo: Nombre de persona.

Asimilación, asimilar: Fenómeno consistente en el acercamiento (hasta llegar a menudo a la igualdad) de un fonema a otro vecino.

Compuesto (nombre): Vocablo nuevo que surge de la unión de dos o más vocablos. Por ejemplo, el compuesto *Aurubilitu* ha nacido de la unión de los nombres *Auru* y *Bilitu*.

Dendronimo: Nombre de árbol. Por ejemplo *haritz* ‘roble’, *urki* ‘abedul’...

Derivado: Nuevo vocablo surgido como consecuencia de añadir un prefijo, un infijo o un sufijo a otro vocablo.

Diminutivo. Véase *hipocorístico*.

Disimilación: Es el fenómeno lingüístico opuesto a la *asimilación*. En este caso un fonema cambia de naturaleza para diferenciarse en mayor o menor grado de otro vecino más o menos semejante.

Étimo. Véase *etimología*.

Etimología: Estudio de los orígenes de un vocablo. Por extensión, origen de un vocablo (étimo). Véase *etimología popular*.

Etimología popular: Asociación de un vocablo con otro por parte de los hablantes de una lengua dada, sin que esta asociación responda a una realidad. Es decir, una etimología popular es una etimología equivocada fruto de la reflexión de los hablantes sobre su lengua misma. Por ejemplo, ciertos hablantes emplean el término *cascahuete* en lugar de *cacahuete*, debido a que para comerlos hay que “casarlos”.

Equivalente (Baliokidea): Forma que adopta un nombre en otras lenguas. Por ejemplo el equivalente castellano del euskérico *Mikel* es *Miguel* y el equivalente francés *Michel*.

Fitónimo: Nombre de planta. Por ejemplo *gorosti* ‘acebo’, *hiazinto* ‘jacinto’...

Hagiónimo: Nombre de santo. *Pedro, Francisco...*

Hipocorístico: Variante expresiva de un nombre, especialmente la que se emplea dentro de la familia o entre amigos. Son hipocorísticos, por ejemplo, *Begotxu, Gari, Joxe, Mirentxu, Patxi, Xatur...* En ocasiones, por cuestiones de redacción principalmente, hemos empleado el término *diminutivo* en lugar de *hipocorístico*, aunque somos conscientes de las diferencias existentes entre ambos.

Nombre de pila: Nombre que se impone al nacer dejando a un lado los apellidos de los progenitores.

Seudónimo: Nombre empleado por un autor en lugar del suyo verdadero.

Sobrenombre: Nombre calificativo con el que se distingue especialmente a una persona. También se utiliza en la obra *apodo*.

Sufijo: Morfema que se coloca al final de la palabra. Por ejemplo, *-di* y *-zu* son dos sufijos presentes en *Artadi* y *Artazu*.

Teónimo: Nombre de divinidad. *Dionysius, Afrodita*

Topónimo: Nombre de lugar. *Arantzazu, Xabier, Estibaliz*

Variante: Forma que se aleja en mayor o menor grado del nombre principal, a pesar de ser del mismo origen. Por ejemplo, *Antso, Antxo, Santso* (de *Sant(z)o*), *Petri, Peru, Betiri* (de *Petri, Petru*)...

Mikel Gorrotxategi Nieto

Patxi Salaberri Zaratiegi